

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- 'ERASO' ala 'ERASOTU'?
- 'ZERU AHOAK'
- ERRUTINAK SALBATUKO GAITU

‘ERASO’ ALA ‘ERASOTU’?

Euskaltzaindiaren arabera, ERASO da termino zuzena eta *dio* erregimeneko laguntzailea behar du:

1. Norbaiten aurka indarkeriaz abiatu, hiltzeko edo kalte egiteko asmoz
2. Indar handiz ekin edo oldartu
3. (Gogor) hasi

Adibideak:

- Etsaiei eraso eta berrogei gizon hil zituzten
- Eraso zion euriari. Eraso dio trumoiari, txingorrari
- Elkarri eraso bezain laster
- Uhin handiek eraso zioten ontziari.

'ZERU AHOAK' FILMA, ZINEMALDIAN

ZINEMA. ZINEMA.
ZINEMA. ZINEMA.

02



Aurtengo zinemaldian Koldo Almandozen 'Zeru Ahoak' filma egongo da Sail Ofizialean, euskarazko beste bi lanekin batera: Karmele eta Maspalomas.

Sinopsia: Nerea Garcia bolada txarra pasatzen ari da, lau urte igaro dira Ertzaintzatik kanporatu zutenetik eta isolatuta eta Bilboko bere etxean sartuta bizi da. Erritualen batean hildako emakume baten gorpua agertu da, eta haren nagusi ohia ikerketarekin laguntzeko eskatu dio.

ERRUTI(NA)K SALBATUKO GAITU

03



Begiak kliskatu eta bukatu da uda. «Adiskide onekin, orduak labur», dio esaera zaharrak. Zuretzat, orokorrean, orduak labur. «Maitia, denbora ihesi doa», pintada txosnetako komunetan. Pin, pan, pun. Uste baino denbora laburragoan sartzea lortu duzu egiteko zenituen planak. Estu-estu, baina egin dituzu azkenean. Pasatu dira sanjoanak eta sanferminak. Eguzkia hartu duzu jendez lepo zegoen hondartzan. Crema eman duzu. Erre egin zara. Titular tristeak irakurri dituzu, eta aurrera jarraitu dute egunek. Juerga. Zerbeza bat. Bi. Ajea eta makarroiak tomatearekin. Hatortxu Rock. Txanda. Topa. Uxue Alberdiren *Hetero* irakurri. Kanpoan bazkaldu. Kanpoan afaldu. Txanda gehiago herriko jaietan. Txupito bat. Txupito bi. Txandalero, txandalari. Makarroiak tomatearekin. Familiarekin bazkaria. Kuadrillakoekin afaria. Oporrak eta hegazkin bat. *Snorkel* arraintxoekin. Hegazkin bi. Pin, pan, pun! Begiak ireki dituzunerako pasatu dira Donostiako eta Bilboko Aste Nagusiak. Abuztuaren 27a da gaur, eta agendari begirada bat ematea komeni zaizu. Libido politikoa baxu daukazu. Dopamina gaindosiaren albo-kalte izango da?

Iraila hasi ere ez da egin eta, dagoeneko, datorren urteko udari uluka ari zara. Baina izan zintzoa; zure eta nire artean, onartu: zuk ere behar duzu errutina gainean daramatzazun arduretatik, damuetatik, lotsatik, dolutik, kudeaketatik edo erabakietatik ihes egin, eta zeure buruarekin bakarka gehiegitan ez elkartzeko. Noiztik ari zara zeure buruarengandik ihesi?



Maialen Arteaga

2025EKO ABUZTUAREN 27A - 05:00